



ARKADIO DOKTOREA, FONENDO OSO JAKINTSUA

Jatorrizko ideia eta textuak

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

Irudiak

Raquel Gonzalo García de Motiloa

Diseinu eta kolorea


Maialen Gonzalo García de Motiloa

Aspalditxo egin da ezagun nire barruan -ospitalean, alegia- Arkadio izeneko mediku bat, eta denek diote oso jakintsua dela.

Mediku hau ez da besteak bezalakoa: fonendoskopio bat da, eta beti ari da neska-mutikoen bular eta bizkarraldean zer gertatzen den entzuten eta ikasten.

Argala da Arkadio doktorea; asko zaintzen du elikadura, eta arreta handiz hautatzen ditu elikagaiak.

Txikia eta biribila du burua, zeruan ikusten den ilargi betearen tankerakoa. Kapela eraman ohi du, erromero-lore bat itsatsia duela. Txikiak ditu begiak, eta bi eltxo dirudite; sudurrak, berriz, ilargia ematen du, edo oliba; haren azpian, bibotea ageri du, pote batean sartutako "n" letra balitz bezala; ahoa, txikia eta fina du, mandarina-atal baten antzekoa.




Andregaia du Arkadio doktoreak. Brenda du izena neskak, eta oso fonendo azkarra da: entzuten duen guztia zaio baliagarri medikuari, aztarnaren bat ematen baitio. Ez da nolanahikoa gure neska; erizain bikaina da.

Oso ederra da Brenda: ile luzea du, bere ahizpa Elenak bezalakoa; begiak, handiak, betile luzekoak, armiarma baten hankak bezalakook; sudurra, anisezko bolatxo baten tankerakoa, eta ahoa... Arrazoi du Arkadiok: bihotz bat bezalakoa da.

Argala da Brenda, eta prakadun traje oso estua janzten du, gerrikorik gabe. Eskularruak ere jantzi ohi ditu, dotorea baita oso.

Lanean ari ez denean, Arkadiori eskutik helduta ibiltzea da paseoan parkean, eskuan poltsatxo bat duela.

Belarriak ditu oinetan Brendak ere, entzuteko, baina, Arkadiok ez bezala, ez ditu bekainak mugitzen.



Unibertsitate-ospitale batean egiten du lan Arkadiok; Brendak, berriz, Agurtzane izeneko pediatra baten kontsultan. Egia esan, bai kontsultan bai ospitalean beti daude biak Agurtzaneren lepotik zintzilik, itsatsitako lepokoak balira bezala.

Oso langileak dira Arkadio eta Brenda, eta asko gozatzen dute besteek diotena entzunez. Horretarako, isilik egon behar izaten dute, ezinezkoa baita entzutea eta, aldi berean, hitz egitea.

Neska-mutikoak auskultatu behar direnean, hau esan ohi dio Agurtzanek Arkadiori:

-Utzi zure belarriak, nireen gainean jar ditzadan; horrela, zuk zer entzuten duzun jakingo dut nik, eta nik zer entzuten dudan jakingo duzu zuk. Beharbada, soinu berberak entzuten ditugula konturatuko gara, eta elkarri are lotuagoak egongo gara.




Horrela doaz eta datoz egunak, udazkenean zerbait berezia gertatu den arte: biltzar batera gonbidatu dute Agurtzane doktorea, Portugalera. Arkadio doktorea ere gonbidatu dute. Izan ere, bai ederki hitz egiten duela!

Agurtzaneren kontsultan geratu da Brenda, udazkenean hotzeri ugari izaten baitute neska-mutikoek. Bere lehengusuarekin (Mario Doktorea) egingo du lan Brendak Agurtzane itzuli arte.

Maleta prestatu du Agurtzanek, baita Arkadioren maletatxo ere. Han joan ohi da Arkadio, termometrozt, xiringaz, depresorezt, tentsiometrozt... —hots, medikuek larrialdietarako eraman ohi duten guztiaz— inguratuta.

Lisboan, Portugalgo hiriburuan, da biltzarra. Mundu osoan da ezaguna hiri horren xarma.



Txanda iritsi zaienean, "Entzuten jakiteak ikerkuntzan duen garrantzia" gaiari buruz hasi dira mintzatzen Agurtzane eta Arkadio.

Hizketan ari diren bitartean, inork ez du txintik ere esaten, eta harrituta daude entzuleak Agurtzanek eta Arkadiok dakiten guztia dela eta.


Hitzaldi amaitu dutenean, txalo-zaparrada handia entzun da aretoan. Agurtzanek eta Arkadiok, berriz, burua apur bat makurtuz agurtu dituzte entzuleak, eta otoitz moduko bat errepikatu dute, berekiko:

"Eskerrik asko entzuten uzteagatik, hori egin behar baita besteei laguntzeko".



Biltzarra amaitzean, agur-afari bat egin dute, eta denek jan, abestu eta edan (pixka bat bakarrik) dute.

Agurtzane eta Arkadio hotelera itzultzean, erdi zorabiatuta dago Arkadio fonendoa, gehiegi afaldu baitu. Orduan, nahastu egin da Arkadio, eta kanario-koloreko bere maletatxora joan beharrean, Agurtzaneren maletan sartu da. Han ezkutatu da, arropa artean, eta "honek ez du nirea ematen" pentsatu duen arren, segituan hartu lo.



Biharamunean, bere maleta eta maletatxoa hartu eta aireportura joan da Agurtzane, Erramun izeneko lagun batekin batera hegazkina hartzera.

Arkadiok, berriz, ametsetan jarraitu du, eguna argitu duela ohartu gabe. Beren hirira iritsi direnean, atsekabeturik dago Agurtzane, ez baita ageri bere maleta. Geroxeago esan diote beharbada ez dutela hegazkinetik jaitsi eta, seguruenik, galdu egin dela.

Brenda esnatzen hasi denean (aharrausika, artean), telefonoa joka hasi da. Hasieran, interfonoarekin nahastu du Brendak, eta pentsatu du: "Bai arraroa nire Arkadio maitea dagoeneko hemen egotea!". Bien bitartean, irratia entzuten da, oso ozen entzuten ere.


Joka ari dena telefono polit bat dela ohartzean, hartu eta harrituta geratu da, Agurtzanek esan baitio maletatxoa ekarri duela, baina ez dela Arkadio inondik ere ageri.

Hasieran, atsekabetu egin da -auskalo non dagoen Arkadio!-, baina, gero, pentsatu du hobe duela arnasa sakon hartu eta lasaitu, gauzak argiago ikusteko.

Bien bitartean, lo dago Arkadio maletaren barruan, Txinara iritsiko dela susmatu ere egin gabe.

Orduak joan, orduak etorri, esnatu da azkenean, eta, maleta apur bat irekita, han ikusi ditu beste zenbait fonendo, hara eta hona.

Bera ez bezalakoak dira fonendoak, eta haien begiek, eltxoen ordezt, makilatxoak dirudite. Pekingo ospitale bateko korridore batean dago. Luze-luzea da korridorea; amaierarik gabea dirudi.




Asko ikertu eta gogotik galdetu ondoren, utzi dio maletak alde batetik bestera ibiltzeari eta, zorionez, Agurtzaneren eskuetara iritsi da. Ireki duenean, alditxarrak eman dio ia, han ikusi baitu

Arkadio, lasai etzanda, biltzar-amaierako afarirako Agurtzanek erositako zilar-koloreko soineko baten gainean.

Agurtzaneri eta andregaiari (Brenda fonendoa) besarkada handi bana eman ondoren, maleta barruan denbora zertan eman duen kontatu die Arkadiok: egunkari bat idazten. Horrela lasaitu zen. Izan ere, esnatu zenean beldurtu egin zen, baina idatzi eta idatzi, isilpean, baretu egin zen.

Begiak makilatxoak bezalakoak zituzten fonendo txiki-txikiak ikusi zituela esan zienean, gogotik egin zuten barre Brendak eta Agurtzanek. Dena dela, makilatxoena amestu egingo zuela pentsatu zuten. Geroago ohartu ziren egia esan zuela, erakutsi zien argazki batean ageri baitziren Arkadio, fonendo jakintsua, eta Pekingo fonendo bat (Txu-Lin).



A decorative border consisting of a horizontal line of small, colored dots in various shades of blue and purple, spanning the width of the page at the top and bottom.

AMAIERA

J.I.E. VI-148-2011